

## BATZAR ZENTROAN EKITALDIAK EGITEKO ARAUAK

### 1. art.- Definizioak

Batzar Zentroan parte hartzeko Arau Orokor hauetan, Antolatzailearen eta BECen artean kontratatzen den jardueraz ari da "ekitaldi" terminoa. "Erakusketari" terminoa, Ekitaldian erakustokiren bat duen edozein pertsona fisiko edo juridiko izendatzeko erabili ohi da. Eta "Antolatzaile" terminoa, Ekitaldia antolatzen duen erakundea edo pertsona izendatzeko.

### 2. art.- Batzar Zentroan parte hartzeko arauak onartzea

Kontratua sinatzerakoan, Bilbao Exhibition Centrek (BEC) ezarritako Arautegi partikularra eta BALDINTZA OROKORRAK bete egingo dituela hitzematzen du Antolatzaileak.

BECeko Batzar Zentroan ekitaldiak antolatzen dutenek nahiz horietan parte hartzen duten erakusketariek bete beharrekoak dira arauak.

BECen egiten diren ekitaldietan Erakusketari parte hartzeko eskatzen duen erakunde edo pertsona fisiko orok onartu behar ditu Batzar Zentroan Ekitaldiak egiteko Arauak.

## 2.-BATZAR ZENTROAN PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

### 3. art.- Batzar Zentrora sartzeko atekak

Antolatzaileak eta BECek kasuan-kasuan adierazten dituzten ateetatik sartuko da Batzar Zentrora.

### 4. art.- Batzar Zentrora sartu eta hortik irteteko ordutegia

Ekitaldian parte hartzeko egiaztagiririk (Antolatzaileak egindakoak) dutenak, Antolatzaileak zehaztutako ordutegian sartuko dira Batzar Zentrora eta Ekitaldiak okupatutako eremuetara.

### 5. art.- Zuzenean edo zeharbidez Antolatzailearen ardurapean dauden langileak

Ez da inolako lan-harremanik (ez zuzenean ez modu subsidiarioan) egongo BECen eta Antolatzaileak nahiz horrek kontratista edo azpikontratista gisa kontratatutako enpresek (muntaketa-lanekoek barne) horien jarduerarekin loturiko lanak egitera BECera eramango dituzten langileen artean. Horrela, Antolatzailearen eta horren kontratisten edota azpikontratisten kontura izango dira langile horien soldatak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, atxikipenak eta aitorpenak, zergen kitapenak, eta lan-kontratutik edo beste edozein kontratu-motatik datozen betebeharrak guztiak. Hortaz, Antolatzaileak, bere kabuz edo BECek eskatuta, betebeharrak guztiak egunean daudela egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

Halaber, Antolatzaileak hitzematzen du, berak egindako lanei edo, hala balegokie, kontratatu edo azpikontratutako lanei aplikagarri zaien laneko segurtasun eta osasun-arloko legeria beteko duela eta arduratuko dela kontratistak edota azpikontratistak bete dezatela.

### 6. art.- Catering-a, elikagaiak eta edariak

Sukaldaritzarekin, kafetegiekin eta koktel eta edari zerbitzuekin loturiko kontu guztiak, zuzenean BECen catering zerbitzuak emateko homologatuta dauden enpresei bideratu ahal izango zaizkie. Edari edo janaririk dastatzeko eskaintzen bada, doan egingo da. Ez da baimenik emango edariak edo janariak zuzenean saltzeko.

### 7. art.- Argazkiak eta filmazioak

BECen (Mantentze Lanak) baimena behar izango da argazkiak eta filmazioak egiteko. Dena den, Antolatzaileak Ekitaldiari buruzkoak gogora egin ahal izango ditu.

### 8. art.- Gehieneko soinu-maila

Debekatuta daude aldi berean egiten diren Ekitaldien garapenari kalte egin diezaioketen erakustaldi zatatsuek. Ezin izango dira 60 dezibelioak gainditu.

Baimendutako soinu-maila gainditzeagatik eragozpenik sortzen bada, BECeko teknikariek hori egiaztatuko dute. Neurketaren emaitza positiboa bada, teknikariek Antolatzaileari bolumenaren baimendutako mugetaraino jaisteko eskatuko diote.

### 3.- SEGURTASUN ARAUDIA

#### 9. art. – Istripuen prebentzioa

Debekatuta dago Batzar Zentroko tokietan istripu-arriskurik dakarren jarduerarik egitea. Ikusgai dauden objektuei nahiz muntatu eta apaintzeko erabili ohi diren elementuei dagokienez, horiek garraiatu, muntatu, erabili, abiarazi eta desmuntatzeko aplikagarri diren Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arauak beteko dira.

#### 10. art.- Zaintza

BEC arduratzen da sarbideak eta kanpoaldea zaintzeaz, suteen aurkako segurtasunaz (instalazio finakoak eta baliabide mugikor osagarriak) eta esparruko larrialdietako seinaleztapenez, Batzar Zentroak eskaintzen dituen instalazioetan ere. Era berean, alarma edota ebakuazioko ohiz kanpoko egoerak zuzentzeaz arduratzen da BEC, Barne Larrialdiko Planaren eremuan.

Antolatzaileak okupatutako tokien barruko zaintza, baita Erakusketarako erabiliko dituen tokiena ere, Ekitaldia Antolatzen duenaren ardura izango da, eta horrek BECekin, behar izango dituen segurtasun-langileak kontratatu ahal izango ditu. BEC ez da kontratatutako tokietan edo batzar-geletan utzitako material edo salgaien segurtasunaren erantzulea izango, Antolatzaileak behar bezala zaindu ez baditu. Hortaz, BECeko langileek ez dute inolako erantzukizunik izango.

#### 10. art.- Sarrerak, libre

Segurtasun-arrazoiak direla eta, muntatu eta desmuntatzen den bitartean, materialak barrutiaren barruan egon beharko dira, eta pasabideak, sarbideak, suteetako ur-hargune hornituak (SUH) eta gainerako guneak libre utziko dira. Ekitaldiak dirauen bitartean, sarrera eta irteeretan ezin izango da enbalajerik edo objekturik jarri.

#### 12. art.- Segurtasun-zorra

12.1.- Suteen aurkako material eta instalazioen kokalekua eta sarbideak errespetatuko dira: suteetako ur-harguneak, suitzalagailuak, alarmak edo larrialdietako irteerak, besteak beste -kontratutako tokien barruan badaude ere-, baita zerbitzuguneetarako sarbideak ere.

12.2.- **GLOBO AEROSTATIKOAK EDO ANTZEKOAK:** barrualdean nahiz kanpoaldean globo aerostatikoak edota antzekoak instalatzeko, baimena eskatu beharko da. Datu hauek eman beharko dira: tamaina, zein materialezkoak diren, zein agenteren bidez (airea, gasa, helioa ...) igotzen diren eta zein ainguraketa-mota erabiliko den.

#### 13. art.- Suteen prebentzioa, ordena publikoa eta larrialdi eta ebakuazio-egoerak

**Suteen prebentzioa:** Eraikuntza-materialek indarreko legeria bete beharko dute, hala nola, suaren kontrako erresistentziari buruzkoa, hala nola, zoruak estaltzeko erabili ohi diren materialena -M.2 izan beharko dena- eta hormak eta sabaiak eraikitzeko erabili ohi diren materialena -M.1 izan beharko dena-. Era berean, apaingarriek eraikuntzan erabiltzen diren materialen ezaugarri berberak izango dituzte, hots, material edo produktu erregairik gabe: lastoa, zuraren txirbila, paperaren txirbila, zerrautsa edo zohikatza, besteak beste. Halaber, zuzeneko sugarretako lanak, erakustaldiak edo apaintetarako egiteko, baimena eskatuko zaio BECeko Zuzendaritzari. Erakunde ofizial eskudunek edo BECeko Zuzendaritzako langileek ikuskatu ahal izango dute arautegia betetzen den.

**Ordena publikoa:** Antolatzaileak, horren kontratistek edota azpikontratistek eta horien menpeko langileek, ordena publikoa egon dadin, aplikagarri den indarreko legeria bete beharko dute.

**Larrialdi eta ebakuazio-egoerak:** Antolatzaileak, horren kontratistek edota azpikontratistek eta horien menpeko langileek, nork bere burua babesteko plana bete eta betearazi beharko dute. Plan hori, enpresa-jarduerak koordinatzeko jardunbidearen bitartez emango zaie.

#### 14. art.- Gehienezko edukiera

BECi, indarreko legeriaren arabera, gehienezko okupatzaile-kopurua esleitu zaio esparru bakoitzeko. Antolatzaileak badaki zein den kopuru hori eta hitzematzen du ez dituela baimendutako gehienezko edukierak gaindituko.

### 4.- ESPAZIOETAN MUNTATZEKO ETA INSTALAZIOAK JARTZEKO BALDINTZAK

#### 15. art.- Zoruen erresistentzia

Batzar Zentroko zoruak **500 kg/m<sup>2</sup>** arteko kargak jasan ditzake. Zerbitzu-hornikuntzako KONEXIO KAXAK ezin izango dira karga puntualen euskarri gisa erabili.

### **16. art.- Lan-ordutegiak**

Esparru barruan muntatu eta desmuntatzeko aldiak eta lan-ordutegiak Ekitaldien Berariazko Arauek zehaztuko dituzte. Aldi horietatik kanpo, ez da baimenduko materialik sartu edo ateratzea, ezta langilerik BECen geratzea ere.

### **17. art.- Ibilgailuen sarrera, salgaien zamalanak, muntatzen eta desmuntatzen denean**

BECera ateetatik sartuko da, kasuan-kasuan adierazten den egun eta orduetan.

Berariaz debekatzen da erakusketarako materialez zamatutako trazio mekanikozko ibilgailuen karga-jasogailura sartzea. Materialen zamalanak, transpalet, eskorga edo antzeko baliabideen bidez egingo dira.

Batzar Zentroaren barrura bakarrik sartuko da materialak deskargatzeko, hain zuzen ere, horretarako antolatutako karga-jasogailuaren bitartez. Igoailuak ezin izango dira zamalanetarako erabili.

Ezin izango da ibilgailurik aparkatu karga-jasogailuaren ondoko zamalanetarako tokietan. BEC ez da horiek zaintzeaz arduratuko zamalanetarako tokietan dauden bitartean; hortaz, aparkatzeko prestatu diren tokietara eraman beharko dira.

BEC ez da, inolaz ere, ibilgailu horien edukiaren erantzulea izango.

Antolatzaileak hitzematzen du salgaiak garraiatu, kargatu eta deskargatzeko kontratatu diren enpresei Arau hauen xedapenen berri emango diela.

### **18. art.- Ibilgailuen erakusketa**

Oinarri laudun plataforma baten gainean jarriko dira ikusgai ibilgailuak, horien pisua oinarriaren azalera modu homogean bana dadin. Antolatzaileak Erakusketako ibilgailuen fitxa teknikoaren kopia bat aurkeztu beharko du. Ibilgailu homologatuak ez badira, Antolatzaileak horien ezaugarri teknikoen xehetasuna aurkeztuko du. Batzar Zentroaren barruan ezin izango dira ibilgailuak abiarazi edo martxan jarri; hortaz, bateria deskonektatuta egongo da eta erregai-tangan erakusketaren ondoren ibilgailua esparrutik kanpo ateratzeko erregai nahikoa baino ez da egongo.

### **19. art.- Debekatuta dauden jarduerak**

1.- Debekatuta dago Batzar Zentroaren barruan edonolako objekturen gainean pinturarik aplikatzea. Ezin da gai arriskutsu, sukoi, leherkor eta osasungaitzik edo usain txarra duen eta bisitarien eragozpenak sor diezazkiekeen gairik utzi edo ikusgai jarri.

2.- Debekatuta dago instalazioak erasatea, hots, pintatu, iltzatzea, itsastea, takoak jartzea, erretenak egitea edo arotzeria edo igeltserotza-lanik egitea. BECen berariazko eta idatzizko baimenik ezean, ezin izango dira zoladurak zulatu, ezta horietan moketarik edo eraikuntza-elementurik jarri ere, ukipen-kolaz edo antzekoek.

3.- Antolatzaileak edo muntaketan edo jarduera antolatzen esku hartzen duten enpresek egindako kalteak konpontzeagatikoko gastuak Antolatzailearen kontura izango dira beti.

4.- Debekatuta dago BECek onartutako planoaren arabera zehaztu diren eremuetatik kanpo muntaketarik egitea.

5.- Ezin da Batzar Zentroko sabaitik elementurik esekitzea, ezta apaingarririk ere.

6.- Debekatuta dago apaingarri moduan gas arinez betetako puxikarik erabiltzea, baita horiek entregatzea ere. Horiek erabiltzeko, aldezturik galdetuko zaio BECeko Zuzendaritzari, puxikak egituraren elementu bati ainguratuta badaude edo igotzerik ez duten gas astun kaltegabez betetzen badira.

7.- Ezin da animaliarik sartu Batzar Zentroran, Ekitaldiaren Berariazko Arauek baimentzen ez badute behintzat, beti indarreko legeriaren arabera.

8.- Ekitaldiaren Berariazko Arauek ekitaldi horretan debekatzen diren beste jarduera batzuk adierazi ahal izango dituzte.

### **20. art.- Hornikuntza konexio-kaxetatik**

Konexio-kaxetatik hornitzen diren zerbitzu guztiak (telefonía eta elektrizitatea) azalera banatuko dira, konexio-kaxatik Antolatzaileak eskatutako puntura.

### **21. art.- Muntaketa-materialak eramatea**

Antolatzaileak barrutiaren barruan materialen bat utzi nahi badu, idatziz eskaera bat aurkeztu beharko du, eta zehaztu zenbat denboraz gorde nahi izango duen, zein salgai mota den eta harremanetan jartzeko izena eta telefona. Zerbitzu horrek sortzen dituen gastuak bereiz fakturatuko dira eta materiala eraman aurretik ordaindu beharko dira.

Egunero, muntaketa-lanek dirauten bitartean, Antolatzaileak nahiz dekoratzaileak soberazko material guztia eramango dute, eguna bukatu ondoren. BILBAO EXHIBITION CENTREK (BEC) edukiontzia jarriko ditu horien eskura.

Ekitaldia bukatu ondoren, okupatu den ingurua lehengo egoeran geratu beharko da. Ezin izango da apaingarririk bertan utzi.

## 5.- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK EGITEKO ARAUAK

### 22. art.- Araudi teknikoa/elektrikoa

BILBAO EXHIBITION CENTREko (BEC) instalazioek bi energia elektriko motez hornitzen dituzte antolatzaileak:

MONOFASIKOA: Faseen eta neutroaren arteko 220V/50 Hz-ko korrante alternoa.

TRIFASIKOA: Faseen arteko 3 x 380V/50 Hz-ko korrante alternoa.

Beste edozein hornikuntza-mota Antolatzailearekin berarekin kudeatuko da, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzak baimendutako Instalatzaile baten bitartez.

- Antolatzaileak BILBAO EXHIBITION CENTREri (BEC) Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak egiten duen Behe Tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria eman beharko dio, baita 50 kW-tik gorako potentziadun instalazioetarako obra bukaerako ziurtagiria ere.

BILBAO EXHIBITION CENTREk (BEC) badu Baimendutako Instalatzaileen Zerbitzu Elektrikoa. Horiek kontratatuzko, dagokion inprimakia bete beharko da.

Energia elektrikoaren hornikuntza erabat etengo da egunero Erakusketaren lanaldia bukatzen denean, aldez aurretik kontraktorik eskatu duten Antolatzaileei izan ezik (esaterako, elektrizitatea 24 orduz behar izaten duten makinak).

### 22.1.- Harguneak

Harguneak BECeko langileek instalatuko dituzte, eta Ekitaldiari dagozkionak, Antolatzaileak berak. Lan horiek Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzak baimendutako Instalatzaile batek egingo ditu nahitaez.

Harguneeen eroaleak, sare orokorretik kaxa elektrikoraino doazenak –eroaleetan ez da loturarik onartzen–, honelakoak izango dira: 1.000 v-ko isolamendua, kanalizazio blindatuetan.

BECek eskatutako potentziaren arabera fakturatuko ditu harguneak.

### 22.2.- Erabilerak

Antolatzaileak ezin izango du aldaketarik egin instalazio elektrikoan, eta hori aldatzeagatik edo behar ez bezala erabiltzeagatik sor daitezkeen kaltearen erantzulea izango da.

### 22.3.- Materialak eta Intentsitateak

Eraikuntza bakoitzak berez itzaltzen den materialeko panel edo kaxa orokorra edukiko du, leku seguruan, eskuratzeko moduan eta jendearen helmenetik kanpo.

Kaxa elektrikoa edo aginte-panela giltzapetuta egongo da eta beti, itxita.

Instalazioa egiteko baimendutako pertsonak bakarrik edukiko du giltza eta, ondorioz, berak bakarrik manipulatu du barrukoa.

Gutxienez osagai hauek edukiko ditu panelak: eten omnipolarreko etengailu orokor automatiko magnetotermikoa. Disjuntorea.

Horretatik irteten diren linea edo zirkuitu bezainbeste etengailu automatiko magnetotermiko bipolar edo tripolarra.

Etengailu Orokor Magnetotermikoaren, disjuntorearen eta Etengailu Automatiko Magnetotermikoen intentsitateak, eta mahuken sekzioak potentziaren arabera izango dira.

Tentsioa: 220 V monofasikoa

Magnetotermikoa: II (bipolarra)

Disjuntorea: 30 MA-ko sentsibilitatea

Tentsioa 3 x 380 V Trif + N

Magnetotermiko IV (tetrapolarra)

Disjuntorea: 30 MA 63A arte

300 MA 63 A-tik aurrera

### 22.4.- Eroaleak eta harguneak

Linea orokorren eta banaketa-zirkuituen instalazioa, argiztapenarena zein argi-indarrarena, isolatutako 1000 V-eko eta gutxienez 2,5 mm<sup>2</sup>-ko sekzioa duten eroale isolatuekin egingo dira.

Debekatuta daude arauzko borneekin egiten ez diren eroaleen loturak, ezta tapadun kutxen barruan (torlojuez edo prezioz itxiak, estankoak, eta hormara edo sabaira finkatuak) egiten ez direnak ere.

Halaber, debekatuta dago isolamendu txikiko eroale paraleloak erabiltzea, baita entxufe beraren hargunetik hainbat irteera jartzea.

3 KW-tik gorako entxufe eta hargune guztiak, zuzenean edo bereiz, panel orokorretik hornituko dira, eta potentziaren proportzioko etengailu automatiko magnetotermiko batez babestuko dira.

Instalazio orok izango du dagokien lur-konexioa, argi-puntuetan nahiz entxufe edo argi-indarraren harguneetan, 16 mm<sup>2</sup> arteko sekzioarekin fase aktiboetan eta sekzio erdiarekin 16 mm<sup>2</sup>-tik aurrera.

Egitura metalikoak lurrera konektatuko dira, eta instalazioa BILBAO EXHIBITION CENTREko (BEC) baimendutako langileek onartu beharko dute.

### **22.5.- Instalazioaren bukaera**

Instalazaitzaileak, lana bukatzean, Euskal Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzan aurkeztuko ditu lanaren bukaera onartzeko behar diren agiriak eta buletina behar bezala sinatuta jasoko du.

Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzako Teknikariek nahiz BILBAO EXHIBITION CENTREko (BEC) Zerbitzu Elektrikoko langileek, beharrezkotzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte, eta instalazioan irregularitasunen bat aurkitzen badute, instalazioa ez konektatzea edo hori etetea erabaki ahal izango dute.

### **22.6.- Betebeharrak**

Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzak xedaturiko Behe Tentsioko Araudia guztiz bete behar da, instalazio elektrikoari dagokionez nahiz dagokion panelarekin babestu beharreko tresna elektriko eramangarrien erabilerrari dagokionez, 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuarekin bat etortzeko.

### **22.7.- Erantzukizunetatik salbuestea**

Energia Zerbitzu guztiak BILBAO EXHIBITION CENTREk (BEC) azpikontratatzan ditu eta, ondorioz, elektrizitate-hornikuntzan etenik gertatuz gero, erantzukizunetatik salbuetsita geratuko da.

### **23.art.- Instalazioa erabiltzeko arauak**

Erabiltzaileak ezin izango du aldaketarik egin instalatutako instalazio elektrikoan; hortaz, bere hargailuak instalazaitzaileak horretarako antolatutako korrante-harguneetara edo konexio-puntuetara konektatu besterik ez ditu egingo.

Ez da entxufe-oinarri batetik ateratzen diren irteera anitzeko konektorerik onartuko. Horien ordez, aurrekoa saihesteko oinarri beharrezkoak erabiliko dira.

Ez da inolaz ere onartuko barrutien barruan edonolako bateria edo metagailu birkargatzea. Horrelakorik instalazioetan sartzeko, BECeko Mantentze Lanetako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio eta horren baimena behar izango da; dena den, horien ondoan kartelak jarriko dira erretzea debekatuta dagoela adierazteko.

BECeko Mantentze Lanetako Zuzendaritzak instalazio elektrikoan onartu ondoren, Antolatzailea izango da hori aldatzeagatik edo behar ez bezala erabiltzeagatik sor daitezkeen kalteen erantzulea, eta kontratistak edota azpikontratrak, erantzule solidarioak.

### **24.art.- Errotulu argidunak instalatzea.**

Tentsio berezirik behar duten errotulu argidunak instalatzeko, baimena eskatuko zaio BECeko Mantentze Lanetako Zuzendaritzari. Baldintza hauek izango dituzte errotuluek:

- Instalatutako transformadore jasotzaile bakoitzeko, babes magnetotermiko bana.
- Azpialdea 2,5 metrotik behera duten errotuluak kalitate dielektriko egokidun inguratzaileetan sartuko dira.
- Hortik gora jartzen diren errotuluek ez dute behe tentsioko alderik isolatu gabe izango.
- Errotulu argidunei eta 1 eta 10 KV arteko hutseko irteeradun tentsioez hornitutako instalazioei, UNE-EN 50.107 arauan xedatutakoa aplikatuko zaie.